

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urriak 1 / III. urtea / 95. zenbakia

Hilketa gosea

Nafarroan ez zen apenas gaizkilerik izan mende honetan sartu arte. Hala zioten lurraldeari buruz Navarro Villosladak eta Pascual Madozek idatzi zuten lanetan. Bidasoatik Ebro-ra bitarteko eremuak, baina, krimen kopururik altuena izan zuen mende honen hasieran, inguruko lurraldeekin ezezik Espainiako herrialde guztiekin alderatuz gero nabarmen aurretik zegoen. Horren bilduma eta sailkapena egin berri du Ramon Lapeskerak Pamielak argitaratu duen 'Caínes navarros' bere liburuan, 'Navarra insólita' sailaren barruan. Azaltzen duenez, garai hartan «nafarra ez zen, ez horixe, gizakume errenazentista, gorputz eta buruaren plazerrez gozatzen emanak dauden horietakoa. Aldiz, grina neurotikoa erakutsi ohi zuen hilobien aurrean sentitzen zuen orgasmoa lehenbailehen lortzearen. Bestelaz, ezin baitaiteke azaldu nafar askok heriotzarako izan zuten bokazioa, eta bi pezeta eta bost zentimo bezalako aitzakia zirtzilengatik». Ironia handiz, Lapeskerak dio Nafarroa gauza guztien gose izan, izan dela, «hilketena izan ezik».



Metropoli forala



FELIPE RIÚS

Paretaren erdian zegoen eta nahikoa falta zitzaion tontorrera iristeko. Soka mosketoi baten zulotik pasa zuen eta eskuaz kopetako izerdia kendu zuen. Orduan hotzikara batek astindu zuen eta momentu batez airean barrena zihoala iruditu zitzaion. Begiak itxi zituen eta,

nonbaiten irakurria zuenez, bere bizitza osoaren errepaso azkarra egiten saiatu zen —gero galdetuko zion bere buruari zertarako balio dieten hiltzera doazenei enpresa baten balantzeen moduan egiten diren erretrospektiba horiek—, baina begiak ireki zituen lehengo toki berean zegoen, iltzetik zintzilik eta ongi aseguratua. Hala ere, dena aldatua zegoen: ez zen txoririk ikusten, ehundaka metrotara zegoen

errepidean ez zebilen kotxerik eta herrian denak hilda zeudela zirudien. Isiltasunak ikaratu zuen, ez zen batere normala gertatzen ari zena; ederki ezagutzen zuen tokia eta gehienetan hamai-ka soinu desberdin entzuten zituen eskalatzen ari zen bitartean, batzutan konzentrazioa ere galarazten ziotenak. Istripu edo eraso nuklear baten posibilitatea bururatu zitzaion lehenbizi, baina holakorik gertatzekotan arrastoren bat izango zatekeen, berak ere nabaritu beharko zukeen, eta airea beti bezain garbi

zegoen, hau da, nahiko zikin metropoli foraleko tximiniek botatako kearen ondorioz. Ez zen mugitzen ausartzen nahiz eta zigarro bat erretzeko kriston gogoa izan. Agian hilda zegoela eta paretare merezi zuten linboa edo infernua izan zitekeela esan zion bere buruari; eternitatea han pasatu behar ote zuen? Asperraldi galanta.

Bizirik zegoen ala ez konprobatzeko esku batez gorputz osoa zeharkatu zuen eta poltsiko batean 'walkman-a' aurkitu zuen. Kontu handiz aurikularrak jarri

zituen, 'play' botoia sakatu zuen eta bapatean dena normaltasunera itzuli zen. Foko batzuen argiak itsutu zuen eta milaka lagun txaloka hasi ziren behean. Berak agurtu zituen, kasetaren bolumentena igo zuen eta kitarren akorde metalikoak entzuten goruntza segitu zuen gloria, ohorea eta zai zeukan txanpain botilaren bila.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Maria Jesus Arbizu margolariaren erakusketa ikusgai dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Muzikazaleen Garcia Castañon kalean duen aretoan. Erakusketak urriaren 3a arte iraunen du, eta ikusteko ordutegia ohizkoa da.

Turismo eta garapen ekonomikoa izeneko erakusketa zabalik dago Doneztebeko Liburutegian, Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatutik. Irailaren 25ean irekia, urriaren 6a arte.

ANTZERKIA



'Kiki, Koko eta Moko' antzerki obra eskainiko du igande honetan, urriak 3, Azkona taldeak, Lerin herrian. Antzerki emanaldia arratsaldean izanen da.

Bazter batean utzitako papi baten historia' izeneko antzezlan plazaratuko du datorren asteazkenean, urriak 6, Baztanen eskainiko dute, eta ostegunean, berriz, Tafallan, herriko Kultur Etxean.

'Zalapartaka' izeneko antzezlan plazaratuko du bihar, urriak 2, Trokolo taldeak, Zubieta herrian. Emanaldia arratsaldeko 19.00etan hasiko da eta Udaletxeko Plazan izanen da.

BERTSO SAIOAK



Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal eta Millan Telleria bertsolariak ariko dira bihar, urriak 2, Urrotzen, bertako jaiak direla eta antolatu duten bertso bazkarian.

Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Txomin Amorena bertsolariak ariko dira datorren asteartean, urriak 5, Anizen.

BESTELAKOAK



Eguzki Eder Antsoaingo dantza taldea ariko da igande honetan, urriak 3, Beruete herrian, arratsaldeko 18.30etan.


Balerrako Musika Banda ariko da igandean, hilak 3, Uxuen, arratsaldeko 19.30etan hasita.

Leizalarrea eta Izaieta

Leizalarrea Leitzako komuna da, eta izenak bestelakoa pentsarazten badu ere, basoez inguratuta da egun. Baso ederrak, hori baita zonalde hau erakargarri egiten duena. Behialan ardiak eta behiak zebiltzan bertan, eta horrek basoen galera ekarri zuen, baina beste tokietan gertatu den ez bezala, hemen, ganadua desagertzean, basoak berarena zena berreskuratu zuen, gizakumearen laguntzarekin, zuhaitzetako asko landatuak baitira. Ondorioz, gozamina da ibilbidea, lasaitasunez bisitatzekoa.

Ibilbidea Leitzatik Leizalarrea daraman errepidetik ateratzen da, 8,200 kilometroan. Pista bat zeharkatu ondoren, eskuineruntz daraman bidea hartu behar dugu, beti Olantzeko errekatik gertu, Aritzauendi izeneko lepora heldu arte. Bertan aurkitu daiteke enbor usteldu baten arrastoak, goroldioaz estalirik, kantzak dioen bezala. Haritz famatu baten azken ondarrak dira. 1882an bota zuen ekaitza batek, baina 1920an oraindik enborrak zutik zirauren, hain zen handia eta erraldoia.

Hortik aurrera, Urdolatxiki-



tik eta Urdolatik, Erroizteko erreka bidea hartu eta berak sortutako iturrira helduko gara. Inguru guzti honetan nagusiak dira birlandatutako basoak, eta denetarik nahasten da bertan. Urdolatxikin izeiak daude, eta ibilbidearen hasieran pinu txuriak ikus daitezke. Iskibar, Aritzauendi eta Sarasainen ugariak dira alertze japoniarrak.

Bideari jarraiki Izaietara helduko gara. Oso ezaguna da herrian eta bisita bat merezi du.

50 bat izei dira, altu eta dotore oso, eta 50 metrotako altura daukate. 180 urte ingurukoak dira, eta hasieran haztegi bezala aprobetxatzeko landatu zituzten, baina gero ez zen horretarako erabili. Izugarri garatu ziren, eta azkenean jatorrizko basoa garaitu dute. Baso ederra da benetan, eta, esan bezala, bisitak merezi du.

Hortik Izaietako erreka hartu eta, Aritzauendiko muinetik, hasierako tokira helduko gara berriro ere.

ASTEKO PERTSONAIAK



Tedi Papavrami
Bibolinjolea



Juan Garcia Blasco
NUPeko errektorea



Vicente Duque
CCOOko kidea

Tedi Papavrami bibolinjole albaniarak irabazi du Pablo Sarasate Nazioarteko II Bibolin Lehiaketa, eta beraz, milioi t'erdia pezetaz jaso ditu. Sari nagusia irabazteaz gain, 22 urteko bibolinjole honek publikoaren saria ere irabazi zuen pasa den igandean, Gaiarren antzokian izan zen finalean. Bertan bildu ziren mila lagunek epaimahakideekin bat egin zuten eta bera aukeratu zuten, beraz, beste 250.000 pezetaz jasoko ditu Papavramik. Bibolinjole gazte honek Georges Enesco saria lortu zuen 1992an, eta Iruñean kontzertua eskaini zuen pasa den otsailean, Sarasateren obrak joz. Pariseko Kontserbatorio Gorenean egin ditu bere ikasketak, eta bere maila hobetzen eman ditu azken urteak Trediakov eta Korxakov maisu sobietarrekin.

Pasa den astelehenean bildu zen lehenengo aldiz Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Klaustro Eratzaila. Udaberrian izan ziren hauteskundeak, eta bertan, Klaustroa osatzen duten 233 lagunak atera ziren hautatuak. Unibertsitatearen sektore guztien ordezkariak hartzen dute parte, eta pauso hau «NUPek autonomia osoa bete dezan oso inportantea» dela azpimarratu zuen Juan Garcia Blasco errektoreak, Klaustroaren presidentea denak. Klaustroak, orain, errektore berria izendatu beharko du eta ondoren, NUPeko estatuto berriak osatu. Garcia Blascok adierazi zuenez, heldu den urteko hasieran izendatuko da errektore berria, eta berak, karguan jarraitzeko asmoa baduela gaineratu zuen, «baina hori Klaustroak erabaki behar du».

Vicente Duque CCOO sindikatuaren Batzorde Exekutiboaren kideak kritika ugari kaleratu ditu egun hauetan sindikatuaren aurka, Maialen Sotes bere lankidearekin batera. Garbi diote CCOO sindikatuan bide demokratiko eta partehartze gutxi somatzen dela «garrantzi handiko erabakiak hartzerakoan». Zuzendaritzako Organoek hartu behar dituzte erabakiak azken unean, bere iritziz, baina «gai inportantetan mekanismo demokratikoak martxan jarri behar dira, sindikatuko beste kideek ezagut ditzaten jarrera ezberdinak, bere erabakiak hartu aurretik». Kasu honetan, Duqueren esanetan, ez da horrelakorik gertatu. Sindikatuko ehun kidek manifestu bat sinatu dute, Nafarroan sinatu den paktuari buruz.

AHAZTU GABE!

IKASTARO ugari antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko Elkartek datozen hilabeteetarako, urrian hasiko direnak. Ikastaro horietan edozeinek har dezake parte, baina elkarreko bazkideek eta alde zaharrean bizi direnek lehentasuna dute. Gaur bertan hasi da matrikulatzeko epea eta urriaren 8a arte iraunen du, arratsaldeko zazpietatik bederatziak arte. Parte hartu nahi dutenek Elkarteko egoitzara joan (Al-dapa kalea 5) edo 21 25 26 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute.

Ikastaro gehienek urtebeteko iraupena izanen dute, baina matrikula hiru hilabetero egin behar da. Masaia (masaiak eman eta jasotzen jakiteko, erlaxazioa, osasun metodoak,...), Eskulanak, Pintura eta Marrakizak, Haur Psikomotrizitatea (3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat talde bat, eta 6 eta 8 urte bitartekoentzat beste bat), Antzerkia, Saloiko Dantzak (bi taldetan, ezer ez dakitenak batean eta esperientzia dutenak bestean), Jostura, Yoga, Autodefentsa emakumeentzat (erasoen aurrean defentsa bideak ikasteko) eta Gorputz-Expresioa dira antolatutako ikastaroak. Matrikulen arabera osatuko dira taldeak.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

'ZOKOBETAILU' Euskalerria Irratiaren saioak etapa berria hasiko du datorren astelehenean, urriak 4, udako etena igaro eta gero. Ordutegia mantenduko dute, goizeko 10.00etatik 12.00etara, baina kolaboratzaile gehiagorekin lan egingo dute, elkarriketak, musika, komentarioak, eta bestelako atalak osatzeko. Dakizuenek, asteleheneetik ostiralera emitituko dute.

Euskalerria Irratiak ordubete gehiago

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Heldu den astelehenean hasiko du Euskalerria Irratiak 93-94ko bere irratietan, bostgarrena, hain zuzen ere. Iaz bezala, programazio berria eta ordubete gehiago egunero, goizez eta arratsaldean. Arduradunen esanetan, «neurritz eta edukiz» haziko da irratia, zegoena indartu eta ez zegoena sortu egin baitute.

«Programazio berriaren helburua orain arte dagoena indarberritu eta saio berriak eskeintzea da», Mikel Bujanda irratiares zuzendariaren esanetan, «bultzada bizkor baten bidez». Horretarako orain arte zuten ordutegiari —lau ordu— beste ordubete gehitu diote —arratsaldeko zazpietatik zortzietara—, emisio musikarekin beteko dena. Halaber, berriemate eta kolaboratzaileen sarea zabaltu egin du irratia, eta 'Hesirik gabe' izeneko irrasaio berria, Nafarroako herri guztietako informazioa bilduko da. Oro har 15 herri, Nafarroa Beherea barne.

'Zokobetailu' saioan ere kolaboratzaile gehiago ariko dira lanean, eta arratsaldetan kirola —ordubete astelehenean—, kultura, herriei buruzko ikuspegi desberdin edo ez ohizkoak, eta beste hainbat gai jorratuko dira.

Larunbatean, bestalde, dagoeneko klasiko bihurtu den 'Xinguli Mangulu' saioak jarraituko du.

IRATIAREN FUNTZIOAK BETE

Programazioa zabaltzeki ez dio inoiz uko egin Iruñerrian dagoen euskarazko irratia bakarrak, eta lizentziaren auziak gauza asko zalantza jarri bazituen ere, ez du eten eguneroko emisioa. Egun, arduradunen kezka da benetako irratia baten funtzioak betetzen hastea, hau da, Nafarroako euskaldun kopururik handiena biltzen duen zonalde honetarako erreferentzia eta topaleku izatea.

Izan ere, irratia berritze prozesuan dago murgilduta, ez bakarrik programazioaren arloan, baina baita egituraren ere, proiektua aurrera eramateko proposamenak bildu asmoz. Hori dela eta, heldu den urriaren 14ean batzarre orokorrara deituko zaie elkarteak duen 900 bazkide ingururi, irratiares egoera eta helburuak berriro zehazteko. Izan dira dagoeneko zenbait bilera eta azterketa, eta hausnarketak bazkideei aurkeztu nahi zaizkie, zerbaitetan mamitu daitezten. Hori heldu den bitartean, langileek beraienari eutsi diote, informazioa gero eta txukunagoa emateari, alegia.



Irratiak frankotan plazaratu du bere helburua.

Arruazu

Iturgain Elkartearen jaia izango da igande honetan

T.S. / IRUÑEA

Igande honetan, urriak 3, Iturgain Elkarteko bazkideen jaia izanen da Arruazun, urtero bezala. Aurtengoan larunbatean egitea pentsatu zuten Juntako kideek, orain arte igandetan egin badute ere. Eguneko ospakizunak eguerdiko 12.00etan hasiko dira, gazteak eta zaharren arteko futbol partiduarekin. Ondoren, jokalariek bazkaria izanen dute. Arratsaldean, Mus Txapelketa azkarra izanen da, Iturgain Elkartean, eta sarien banaketa ostean Herri Afaria hasiko da, nahi duten guztientzat.

nak eguerdiko 12.00etan hasiko dira, gazteak eta zaharren arteko futbol partiduarekin. Ondoren, jokalariek bazkaria izanen dute. Arratsaldean, Mus Txapelketa azkarra izanen da, Iturgain Elkartean, eta sarien banaketa ostean Herri Afaria hasiko da, nahi duten guztientzat.



TUTERAko onespina jaso zuen joan den larunbatean Rafael Mo-neo arkitekto handiak, bertako Castel Ruiz kultur etxearen areto nagusian. Bertan eman zion Erriberako hiri horretako Udalak Seme Kuttunaren titulua. Mo-neok azaldu zuenez, Tuterari asko zor dio eta bertan jaio izateagatik bere harrotasuna azaldu zuen. «Hiria haurrak zer izan nahi duen erabakitzen duen tokia dela esan zuen norbaitek, eta neretzako toki hori Tuteran izan zen. Herrikoa izatea mundu honetan dau-dan gauza zoragarrietakoa da» esan zien hunkiturik zegoen Mo-neok bertara azaldu zen jende andanari, tartean Juan Cruz Alli, Javier Otano eta Jose Antonio Perez Sola Tuterako alkatea.

GAREsko laien lehiaketa egin zen joan den igandean, hamargarren aldiz. Julio Agerri garestarra izan zen txapelketa, eta atzetik sailkatu ziren Cesar Ollo, Javier Orbegoza, Juan Carlos Bakaikoa eta Francisco Bañales. Lehen-dabiziko biek iaz ere postu be-rean geratu ziren, eta lasterketa bukatuta, horretarako behar den indarra eta teknika azpimarratu zuten. «Oso ongi koordinatu egin behar dira mugimenduak» azaldu zuen Cesar Ollok, «zola oso irristakorra baita».

FESTAZ FESTA

LARRAGA

Urriak 1, ostirala:

11.30 Lagun taldeak Palanqueran elkartuko dira kaldereteak egiten hasteko.
13.00 Erraldoi eta kilikiekin kalejira.
14.00 Herri bazkaria Foru plazan.
16.00 'Xanadu' orkestraren kontzertua Foru plazan.
17.00 Kalejira.
20.00 'Xanadu' orkestrarekin dantzaldia plazan.
21.00 Zenezuzkoa ohizko ibilbide-tik.
24.00 Kalejira zenez plazaraino, eta bertan Angel Macua ganadutegiko betizuak.
01.00 Udal bandarekin kalejira Foru plazaraino, eta bertan 'Xanadu' orkestrarekin dantzaldia.

Urriak 2, larunbata:

11.30 Meza.
13.00 Udal Bandarekin kalejira eta jubilatuentzako hamaiketako.
15.00 'Casa Pericon' bazkaria.
16.00 'Revista Varietés' taldearen kontzertua Laguna elkartean.
18.30 Landa eta Euskal Herriko eran zenezketa. Jarraian Angel Macua ganadutegiko betizuak.
20.30 Udal bandarekin kalejira Foru plazaraino, eta bertan 'Metropoli' orkestrarekin dantzaldia.
21.00 Zenezuzkoa.
23.30 'Revista de Varietés' Laguna elkartean.



24.00 Kalejira.
00.30 Metropoli taldearekin dantzaldia Foru plazan.

ATARRABIA

Urriak 2, larunbata:

12.00 Jai suziaren jaurtiketa Udal-letxe bakoititik. Jarraian musika banda, txistulariak, gaiteroak, kiliki

eta erraldoiekin kalejira.
16.30 Herri Kirolak Udal plazan.
16.45 Txirindularitza frogak: XIII. Kriteriuma.
17.30 Kalejira Basoko txaranga eta Kilikien konpartsaekin.
18.00 Atrarrabia pilotaalekuan eskuzko pilota partiduak.
19.00 Herri Musika Udal plazan.

19.45 Polikiroldegian esku baloia.
19.50 Besta jira elizatik irtenda Erro-sarioa herriko kaleetan zehar txaranga-ren laguntzarekin. Ondoren Agurra.
21.15 Txaranga herriko kaleetan zehar.
22.00 Su artifizialak.
22.00 Karaoke lehiaketa udal igerilekuan.
24.00 Txoznetan rock kontzertua.
00.30 Dantzaldia 'Al Aska' taldearen eskutik.

IGANTZI

Urriak 1, ostirala.

11.30 Pilota partiduak herriko haurren artean.
12.00 Haurrentzako jolasak.
17.00 Herri Kirolak.
17.00 Gaiteroak.
20.00 'Basajaun' taldearekin dantzaldia plazan.
00.00 'Basajaun' taldearekin dantzaldia plazan.

Urriak 2, larunbata.

10.00 Argi soinu gaiteroekin.
11.30 Pilota partiduak: Arbizu-Goni Mariezkurrena-Almadozen kontra.
17.30 Nafarroako 2. Mailako aizko-lari txapelketako kanporaketa.
17.30 Gaiteroak.
20.00 'Izotz' taldearekin dantzaldia plazan.
22.00 'Izotz' taldearekin dantzaldia plazan.



ELIZONDO eta Arizkongo biztanleek ordu tragiko eta larriak bizi izan zituzten joan den ostiralean, inguruan erori zen eurijasararen ondorioz izan ziren uholdeengatik. Kalte handienak Elizondoren bertan izan ziren, baina inguruetako herrietako pistak ere penagarri gelditu ziren, baserri, auzo eta herriaren arteko bide asko desagertu egin baitziren. Arizkun 168 litro metro karra-tuko bota zuen, eta Lekaroz 105 inguru. Horrek Baztan ibaia-ren handitze azkarra eta izugarria sortu zuen, eta ez zuen ezertarako betarik eman. Arizkongo Ordoki auzoko baserri batean, hamabi zerrikume eramane zituen urak, eta ia-ia baita Bautista Soule bertako juradoa ere, zenbait me-trotan arrastaka ibili baitzen. Eli-zondoren bertan suhiltzaileek bi haur atera behar izan zituzten etxe batetik, ura etxean sartu eta barruan zeudenak atera ezinean utzi baitzituen. Baztango Uda-lak, alkateak zehaztu zuenez, la-guntza eskatuko dio Nafarroako Gobernuari kalteei aurre egin ahal izateko.



Historia pertsona arruntek idazten dutela diote liburutzarrek, baina ez da askotan esaten orrialde asko narrasak eta odolez beteta daudela. Ramon Lapeskerak berreskuratu ditu horietariko asko atera berri duen 'Caínes navarros' bere liburuan. Historia odoltsu eta ahaztua, baina Historia, finean.

Gaiztoak baina nafarrak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA


Topiko guztietan bada ezku-
tatu nahi den egia, ezabatu nahi-
den aniztasuna, bakar batzuen
mesederako probetugariagoa
izaten baita jendea edo gizarte-
a ezagarrion horma estuen artean
kokatzea eta finkatzea, askata-
suna ren zorabioan eta indefini-
zioan mugitzen zuti beharrean.
Ezerk ez dio ihes egiten topikoa-
ri, ezta gizakumearen alde ilune-
nak ere, eta, horrela, Nafarroan,
joan den mendean nagusitu ziren
topikoen arabera, ez zen apenas
gaizkilerik, ezta, 'garantizitsu-
na', ezkonduen arteko infidelta-
suna eta jelsokierik eragindako
krimenik. 'Zeren bai emazteak
nola senarrak saiatuak behar du-
te izan etxetik edertasunari eus-
teko, eta ez batak ez besteak ez
dute dohakabe edo jelsokor izate-
ko astirik', zioen Navarro Vi-
llosladak 'La Mujer de Navarra'
izeneko liburuan. Gure lurral-
dean haur eta guraso hilketarik
'«ez zela izan» baieztatzen zuen
Pascual Madozek 1845ean argi-
taratutako 'Diccionario Geogra-
fico Estadístico Histórico...' ber-

liburu sonatuan. Errealitatearen bestelakoa zen, baina, mende horien hasieran Nafarroako kriminen kopururik altuenak baitziren inguru osoan, Espainiako eskualdeen aurretik nabarmen zegoela *ranking* berezi honetan.

Erealitate lazgarri bezain in-terresgarri horrekin egin zuen to-
po Ramon Lapeskerak Nafar-
roako Artxibategian murgildu
zenezan, «joan den mendea usatu
ez beste asmorekin». Hortik sortu
ziren Pamielako 'Navarra insoli-
ta' tituluan bildu dituen bi libu-
ruak, baina bereziki deitoragari-
zitaizen krimenen historia, or-
dura arte argitaratu eta ezagutze-
ra emangabea. «Bertan ikusi-
nuen Nafarroaren egoera ez zela
Madoz eta Villoslada bezalako
idazleek aipatzen zuten bezain
baketsu eta ideala».

KOMUNIKABIDEEN Nondik,
JARRERAREN bada,
ALDAKETA errealita-
tearen manipulazioa? Zergatik
irudi baketsu eta idiliko hori
eman nahia? Lapeskeraren uste-
tan, errealitate gordinena ezku-
tatzeko botereak betidanik era-

kutsi duen grinagatik. «Botereak beti esaten du ez dela ezer gertatzen, dena ongi dagoela. Horregatik interesatzen zaizkio komunikabideak». Elizak, adibidez, debekatu zien egunkari katolikoei krimenen berri ematea, bereziki bortxaketei buruzkoak, eta, beraz, krimenaren berria, hasieran, kazetaxto modukoa zen: nork, noiz, eta non —zergatia inoiz ez—. Mende honen hasierarain zutera, baina, komunikabideen jokaerak ere aldatu egin ziren, hortik etekila atera zitekeela ikusi eta berehala. Hasieran fitxa moduko errelato hutis eta hotz zirenak gorroto edo amodiozko istorioen kontakizun lagarri bilakatu ziren. «Zehaztasun guztiak hasi ziren azzaltzen, bat bera ere ahaztu gabe, eta famatuak izan ziren publikoaren aurrean egin ziren exekuzioak: Torribio Egiarenar Inueño Takonaran, Lizarrako Foruñ Enparantzaz bete zuen beste bat... Orduan zigortua eskuak loturik zihohan, eta bide osoa jendez beteta zegoen. Enparantzaz ere goizeko seiatarako lepo egina zegoen, eta parraltzarlepa zeuden».



Idazlearen arabera, erraz asko ulertzen da komunikabideek ustetzerabiltzen zuten etika bikoizta hau. «Hipokresia bazegonen, horren kontra egonda ere, zehaztasun guztiak aipatzen baitzituen gero, baina moralismo izugarri handia aurki daiteke atzetik: komunikabideak ohartu ziren krimenen berri eman behar zela beren moralara ezartzeko, 'hau gaizki dago' esateko».

Krimenaren maila etikoa igo ez bada ere, bai ordea azken urteotan izan duen tratamendu eta segimendua. Atzo goizeko inhotzia baita telebistan bereziki eskaintzen ari zaion aparteko toki eta garrantzia. Frankotan eta jende askok kritikatur, morbotasuna zilegizko ote den galderak harrapatzen du bete-betean ezartabaida. Alesbesko idazlearentzako, bai. «Nere ustetan, gizakumearen izakia, berez, gaiztoa da. Honek esan nahi du norberaren poza besteen zorigaitzarekin batera datorrela, eta berez morbo naturala da. Naturala ez dena

krimenaren aurrean paratu dizki-
guten oztopo etikoak dira». La-
peskerarendako balizko krimi-
nalak, izan ere, denak gara, «bai-
na gutxi dira azken urrats hori
ematen dutenak. Eta hala ere,
krimena egiten duena erakarga-
rria zaigu, desioa eta errealitatea-
ren arteko muga gañinditu baitu».

**«HARREMANAK
ERAGITEN DU
KRIMENA»** Ildo honi ja-
rraiki, norbait
beste bat hil-
tzeraz bultzatzen duena jendearen
arteko harremana bera dela uste
du idazleak, eta bere egiten du
esaldia: «bakardadean bizi denak
daki elkartasunaz». «Egun jen-
dearen artean elkartasunaz eta
harremanetan aritu beharraz arit-
zen da jendea, baina hori da bio-
lentziaren iturri joriena. Barru-
koen arabera eta ez besteei ger-
tatzten zaienaren arabera bizi den
persona batek ez du inoiz ere
inor hilko. Hain zuzen ere, jen-
dearekin harreman handiak eta
usuzkoak ditutena da hiltzaile-
ren ohiko soslaija».

Ilustrazio guztiak Pamielak argitaratutako 'Caines narros' liburutik ateratakoak dira.

Liburuaren ateratzeko arrazoien artean, morboaren bazer-tza egiten du Lapeskerak, eta hogregatik ez da zehaztasun sobera agertzen kontakizunak egitera koan. «Krimenaren atze- an daudend iazarak dira interesatzen zaizkidanak». Halaber, zenbait topikoekin hausteko bere nahia- k eragin du liburuaren kalera ateratzea. «Lehendabizi, garbi gel- ditu dadila ez dagoela Nafarroa osoan guztiz ondruta eta zoldá- rik gabeko familiarik, toki guz- tietan izan baitira gaizkileak. Bi- garrenik, horrekin ikusten da gi- zakumearen historia arrazen ar- teko nahasketaren historia dela, ez dela inoiz ere izan goitik be- herako bateratasunik. Hiruga- rrenik, besteekiko¹ bizi behar du- gunaren ideiarren kontra azaldu nahi izan du liburu honen bidez. Lagunkoi dena intolerantea da».

Orain arte pedagogia eta irakaskuntzaren munduaren inguruko liburuak argitaratuta baldin badauzka ere —luze gabe 'El placer de leer' liburuu kaleratuko du—, bi eleberr dauka ia bukatuta. Bata bere belfunaldiaren beldure eta traumen inguruko, eta bestea heldutasunari buruzkoa, baina biak krimenaren harira birribidua. Bistan da, krimena gustukoa du Lapeskerak. «Gizakumearen ekintzarik erakargarriena zait. Akaso inor hiltzeko gauza ez naizelako».



Epaile hiltzaile eta besteez...

A.B. / IRUÑEA

inor ez zen horretaz jabetu, baina haien arteko gora-beherak gero eta sutsuagoak ziren. Egun horretan gelditu ziren herriko plazan beren desadostasunak konpontzeko, baina epaileak etxetik ateratzean, labana hartu zuen. Orduan, elizara heltzean, izkina batean itxaron, eta Gorriti hurbiltzean barruraino sartu zion labana. Odola zeriola jausi zen berehala, baina oraindik bizirik zegoela ikusirik, epaileak harri

bat hartu eta buruan eman zizkion hainbat kolpe. Gaueko 11k ziren, eta hilda zegoelako ustean bildu zen etxera.

Hurrengo goizean, baina, bizirik zegoen oraindik Gorriti, eta epaileak bere zigorra jasoko zuen beldurra ezin uxatuz bizi izan zituen hurrengo egunak. Bere mesederako Gorriti gaixoa konortera etorri gabe hil zen hogeita egunen buruan. Epaileak bizitza osoa eman zuen atsekabeturik,

baina inoiz ez zuen bere hobena aitortu.

1904eko apirillean beste krimen handia gertatu zuen Ison, Iza-ga ondoan. Nicolas Olaberri Mugeta hil zuten tiro eta aizkoradaz, eta berehala atxilotu zituen Goardia Zibilak Teodoro Mele-ro, Aureliano Iriarte eta Hilario Lasa gaizeak, hiltzaileak zirela-koan. Hauek baina, behin eta be-rririo ukatu zuten leporatutakoa. Bederatzi egun geroago, Goardia Zibilak benetako hiltzailearen arrastoa aurkitu eta berehala atxilotu zuen Francisco Gil Gol-darazena Aritakoa, 18 urteko gaiztea. Hamar egun pasa ondo-ren, gaizeak gainontzeko hiru atxilotutakoekin batera burutu zuela hilketa deklaratu zuen, baina bost egun geroago hiltzaile bakarra bera zela berretsi zuen. Orduan jakin zenaren arabera, Goardia Zibilak kartzela zigorra lauon artean banatzea eskaini-zion gaizteari beste hiru atxilotu-takook akusatuz gero, baina az-kenean egia nahiago izan zuen. Epakaitan, hasierako hiru gaz-teak libre gelditu ziren.


**PORLANENGATIK
HIL
NAHIA** Olazti beti
bizi eta hazi
izan da Por-

tlan lantegiari esker, baina baita berarengatik hil ere. Faustino Pueyo, bertako langilea, 1905eko abenduaren hurbildu zen Rodolfo Gruin zuzendariaren bulegora, soldataren igocera eske, baina ohizkoa zen erantzuna jaso zuen: ezetza biribila. Hurrengo egunean, baina, kaleratze eskutitza bidali zioten. Faustino, erne-gaturik, zuzendariaren bila joan zen eta aurkitzerakoan, labankada zenbait sartu zizkion, baina ez zuen hil.

Adibide hauen aurrean, pentsatzekoa da orduan orain baino askoz ere arrisksuagoak eta izugarriak zirela Nafarroako herri eta jendeak, baina egun hilketa gehiago dagoela uste du Lapeskerak, eta «hobeto» hiltzen dela.



Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako txapelketaren seigarren jardunaldiko partida, 1992ko azaroaren 7an jokatu. Jose Maria Zelaia (Oberena 'A') Pedro Viñalen (Anaitasuna) aurka.

1. e4, c6; 2. d4, d5; 3. d5, d5; 4. Zf3, Zc6; 5. Ad3, Ag4; 6. c3, e6; 7. Af4, Ad6; 8. Ad6, Dd6; 9. bZ-d2; gZ-e7; 10. Zf1. Ez ohizko jokaldia. Atzera joatea txarra izaten da gehienetan. Momentu egokian hori egitea (jokoa beste tokira eramateko) ez da maiz ikusten.

10..., Af5; 11. Zg3, Ad3; 12. Dd3, 0-0; 13. 0-0, Zg6; 14. Zh5, Zf4; 15. Zf4, Df4; 16. g3, Df6; 17. Eg2, a6; 18. a4, fG-d8; 19. fG-e1, aG-c8; 20. h4, Ze7; 21. Ze5, Zf5; 22. Df3, Zd6; 23. Df6, f6; 24. Zd3, Ze4; 25. Ge2, Gc7; 26. Ga3, Zd6; 27. Gb3, b5; 28. b5, b5; 29. Ga3, dG-c8. Jokaldi honen, gazteluaren zutabea txurien esku geratzen da. Hobe zen 'dG-d7'.

30. Ga5, Gb8; 31. Ge1, Eg7; 32. eG-a1, Ze4; 33. Ga7, cG-c8. Hobe 'bG-b7'. Beltzak leku gehiegi eskaintzen ari dira.

34. fG-a6, Ge8; 35. f3, Zd2; 36. Zf4, b4. Ez dira arriskuaz ohartu. Txuriek asko landutako barnealdia, etekinak jasotzen ari da.

37. Ze6 xa, Eg8; 38. Zf4,c3; 39. c3, Zc4. Ikus koadroa. Beltzen peoiak oso ahulak dira. Horregatik, beren defentsan alferrik ihardun beharrean, erasoaren bidea aukeratu dute.

40. Zd5, Ge2 xa; 41. Eh3, bG-b2; 42. Zf6 xa, Ef8; 43. Ga8 xa. Ez dago mateari ihes egiterik. Txurien artisa-lana nagusi izan zen.

MARI JOSE CABEZA

...hain zen ziur eta beroa bere besoetan egotea..., hain ziren adierazkorak bere begi urdin eta handiak, ezen itsutu egin bait ninduten eta orain, nire barruko edozein lekuko zulo sakon eta ilun batean nago preso, jauki nuen okerragatik.

Biok, belar hezean geunden eserita gaueko izarrei begira. Bere beso sendoez inguratzen ninduten, aldi berean maitasuna eta babesa emanez. Ni pozik nengoen, bere begiek benetako maitasuna adierazten zuten eta nik, hain inuxente! betirako izango zela pentsatu nuen. Berak benetan maite ninduela zirudien. Niri ele ederrak esaten ziharduen, tarteka masail eta kopetan muxu emeak emanez. Nik bai; nik benetan maite nuen, eta agian okerrera da oraindik maite dudala. Berak, zoriontsu zela esaten zidan eta ni ere zoriontsu egingo ninduela.

Itsuturik

Handik denbora pixka batera herrira itzuli ginen eta bertan lagunekin elkartu ginen. Gau hartan ez genuen bakarrik egoteko aukera gehiago eduki; hala ere, ez zirudien berak gogo handirik zeukanik, nik edozein gauza emango nukeen une haietan. Edozein gauza bera-ekin beste ordu erditxo bat igarotzeko.

Baina bapatean, nigandik aldentzen zen. Nik begiraten nuela ikustean, begirada beste leku batera gidatzen zuen. Beste neska batekin ziharduen hizketan. Bere begiek neskata hura nola engainatzen zuten nabaritu nuen. Ni bezala, itsuturik zihoan berarekin, ilunpean galdu ziren arte. Orduan konturatu nintzen dena faltsua zela; esan zizkidan hitz eder haiek, gezur zikinak zirela. Ez dakit nondik ateratzen zitzaizkion. Nik esaten nizekionak barru-barrutik ateratzen ziren, bi-

hotzetik.

Oraindik... da okerrera; berak... maite pentsatzen dudanean jasaten ari naizen tristezia handiagotu egiten da. Baina, ahaztu; hori da nire eginbeharra. Espero dut, hala ere, neskata hura ez egotea ni bezain gaizki. Hitzak bakarrik ziren ederrak, bihotza ordea faltsua.

Azken finean ni galtzen atera nintzen. Nire maitasun guztia eman ondoren, beste neska batekin aldegitzen du. Txit triste nago.

«Baina horregatik ez duzu horrela jarri behar» esaten zidaten nere lagunak aurpegi alai batekin. Asko sufritzen i naiz eta ez dut inoiz ere aliztuko mutil begiurdin hark egin zidana. Niretzat hain garrantzitsua izan zen gau hura...

Mindurik segitu beharko dut, kolpeak ematen dizkidan bizitza triste eta ilun honetan.



Arga

Zorionez ez dago inolako arazorik hidronimo honekin, ez grafiagatik ezta erabileragatik ere. Baina badago zer kontatu franko ugalde honi buruz. Informazio gehiago nahi duenak itxaron beharko du Jimeno Juriok idatzitako artikulua argitaratu arte.

Gaur egun edozein eskola umek laster laburbilduko luke Arga ugaldeari buruz jakin behar dena. Arga Urkiagan (Erroibarren) sortzen da eta gero Esteribar zeharkatzen du iparraldetik hegoaldera Atarrabian Ultzamatik datorren ura bereganatzeko. Iberon Arakilarekin biltzen da eta izena gordeko du harik eta Funesetik beherago Aragon ugaldera bildu arte.

Baina ez da beti izan horren lasaia Arga izenaren bizimodua. Alde batetik Arga izena Iruñerriko beste zenbait ugaldek eraman dute eta bestetik Arga ez da beti izan Iruñeko ibai nagusiaren izena ezta Atarrabiatik goragoko ugaldearena ere (rio de Zubiri deitua 1850. urtean). Hori bai, Garestik hegoaldera ez dago dudarik eta beti Arga esan zaio.

Has gaitezen aurreneko arazotik. Arakil ibaiak, Oskiatetik Iruñerria sartu bezain pronto, izena galtzen zuen eta beste bat hartzen zuen: Arga. Halaxe ikusten dugu XI. mendean Ollaranen eta XVII. mendean oraindik ere Oltza zendea. Baita Elorz ugaldeari ere deitu izan zaio Arga: «rio Arga que pasa por Donapia».

Eta harrigarria bada ere Iruñeko ugaldeak, Argaz gain, beste izen asko izan ditu. Gogora dezagun, berriz ere, urak ez duela izenik izaten eta normalean tokian-tokiko izenak hartzen ohi dituela. Iruñean esate baterako Arga esan beharrean Rio de Beloso, rio de los Alemanes, rio de los Quintos, rio de San Pedro, rio de la Biurdana... Baina izen txiki hauen ondoan bat nabarmentzen da: Runa. Arga izenarekin batera hau baita Iruñeko ugaldeak izan duen izenik ezagunena. Izena XII. mendean usu erabiltzen da eta XVI. mendean oraindik ere bizirik dago. Dirudienez izena oso lotua dago Iruñean ugari ziren bortuez haratagoko hiztun erdaldunekin. Forma aldetik ezin begietatik kendu ugalde eta hiriaren izenen arteko antza. Ibaiari Runa esaten zaio dokumentazioan bereziki baina baita Runia eta are Iruna ere. Hiriari, berriz, gehienetan Irunia esaten zitzaion baina baita Irunia, Iruna, Runia eta Ruina ere. Ezin ukatuzko paralelismoa bi izenen artean. Gainera, behin eta berriro errepikatu dugunez, urak tokian-tokiko izena hartzen du eta ez da harrigarria Runa, Runia edo Iruna ugaldea izatea Runa, Runia edo Iruna hiritik zetorren ura.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Marrazoa (IV parte) uspel zinema

Egia da. Ama akabatzen ez duten bitartean, halako marrazoa ez dituzte betiko garbituko. Martzelogradorekin antzeko zerbaite gertatzen da. Leinu honek dirauteraino, hau ez dago konpontzerik.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Uholde
2. Adimentsu
3. Herri nafarra
4. Guztiak
5. Neguko janzki

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Lirain
2. Herri nafarra
3. Mantala
4. Ur korrontea
5. Klarionak

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

1. Herri nafarra
2. Garrezko
3. (Bizk.) Bazter
4. Dardara
5. Neguko janzki

1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5
1	2	3	4	5

Bizi Bizian

Aspalditik datorren kontua da, sugeak direla eta, ekologisten eta baserritarren artean dagoen eztabaida. Baserritarren ustez, ekologistek sugeak botatzen dituzte Nafarroako soro eta mendietan

eta askotan, suge hauek euren abereak hiltzera iritsi omen dira. Ekologistek, bestalde, ez dutela inoiz sugeak bota diote «ez baita inolaz ere beharrezkoa». Iritziak iritzi, eztabaidak bizirik dirau.

Sugeak, behi hiltzaileak?

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Nafarroan, beste hainbeste lekutan bezala, talde ekologistek arazo ugari eta jarrera kontrajarri askori egin behar izan diote aurre. Arazo horietako bat edo, hobeto erranda, aspaldidanik piztuta dagoen eztabaida edo polemika, sugeei dagokiena da, hain zuzen ere. Lur gainean herrestan ibiltzen diren narrasti horiek, nahaste galanta sortu dute ekologista eta baserritar askoren artean. Zein da, zehazki, sugeek sortzen duten arazoa? Galdera honen erantzuna, noski, ezberdina da ekologista bati edo baserritar bati eginez gero.

Baserritar bati zuzentzen bazaio galdera, ziur aski, sugeak kalte askoren iturburutzat joko ditu. Errate baterako, aspalditik dago baserritarren ahotan, ekologistek zelai eta mendietan bota dituztela sugeak, narrasti hauek kopurua urtetik urtera nabarmenki handituz. Eta narrasti hauek dira, baserritarren ustetan, beraien abereak, behi eta txahalak besteak beste, hiltzen dituztenak.

Eztabaida hau aspaldiko kontua bada, azken asteotan indarberritu egin da eta hainbat herritan, sugeak bota omen dituzten susmoa piztu egin da berriro. Honen adibide da Arraitz (Ultzama) herria. Arraitzen, azken asteotan, lau behi hil dira, bi Galbarrena baserrikoak eta beste bi Etxeberrikoak. Antza denez, sugeren batek ziztatu zituen, hanketan narrasti hauek ziztada egin ondoren uzten dituzten bi zulotxoak baitzituzten. Hala ere, Dionisio



Lau behi hil dira Arraitzen, baserritarren ustetan sugeen ziztadaren eraginez.

Redinek, Galbarrena etxeko jabeak onartu duenez, «inork ez zuen ezer ikusi, beraz, ezin da ezer ziurtatu».

«SEKULA BAINO GEHIAGO» Dena den, Arraitzen azken urteetan suge ugari ikusi dela jakinarazi nahi izan du Redinek. «Sekula baino gehiago dago inguruetan, tamaina berekoak

Ekologisten esanetan, sugeak beraiek botatzen dituztenekoa baserritarren funtsik gabeko ustea baino ez da.

denak, nahiko handiak, eta kolore berekoak, berdeak edo». Hau kontuan hartuta, «ia ziur nago sugeek hil dituztela nere behiak» erran du baserritarrak. Ziurtasun osoa edukitzeko, halaber, alabaiteroari analisi batzuk egin zitzaion eskatu zion eta hauen emaitzaren zain dago Dionisio Redin.

Ustea baino ez bada ere, Redi-

nek sugeak bota behar izan dituztela dio, eta suge hauei egotzi die bere abereen heriotzaren errua. Baita Etxeberria baserrikoek ere, bi behi galdu baitituzte.

Polemika honekin jarraituz, 'Tipi-Tapa' aldizkariaren 117. zenbakian, beste baserritar batek sugeen arazoa aipatzen zuen: «Egia ote den edo ez ekologistek sugeak botatzen dituztela nik ez dakit. Bada ez bada ere, ekologista horiek hainbertze maite baitituzte, etxera eramanez dituztela» idatzi zuen.

Erran bezala, sugeei buruzko arazoak edo auziak erantzun ezberdina du bati edo besteri galdetuz gero. Eta ekologistek galdetzen badiegu, talde ezberdin guztiak bat etortzen dira ondokoa baieztatzean: «ekologistek ez ditugu sugeak botatzen». Are gehiago, inork ez ditu botatzen, bai Gure Lur eta bai ANAT-LANE talde ekologistek adierazi dutenez. Gure Lur taldeko kideek zalantzarik gabe gezurtatu dute ekologistek sugeak botatzen dituztenik. «Lelokeri bat da, gezurra», diote. Sugeak botatzea ez da inolaz ere beharrezkoa eta, gainera, ez dago zeregin horretan dirutza gastatzeko prest dagoenik, beraien ustez. Baserritarren artean zabaltzen diren funtsarik gabeko usteak baino ez dira, Gure Lurrekoen hitzetan, sugeei buruz dagoen kontua.

Beraz, irizpide ezberdinak daude. Aspaldidanik datorren polemika hau ez da ziurrenik gaur bukatuko, eta abereak hiltzen diren bitartean behintzat, guztien ahotan egongo dira sugeak.

«Ekologistek ez ditugu botatzen»

E.E. / IRUNEA

Ekologistek sugeak botatzen dituztela edo ez dituztela botatzen eztabaida lehenbailehen bertan bera utzi nahi izan dute ANAT-LANE taldeko kideek. Beraien ustez, suge ugari dagoela eta, sortu diren zurrumurruak besterik ez dira arazo honen sortzaile. Jose Carlos Irurzun ANAT-LANEkoak azaldu duenez, «sugeak eskala trofikoaren beste elementu bat dira, baina ez zaio inori interesatzen suge gehiago edo gutxiago izatea, are gutxiago ekologistek». Gainera, sugeak bota ahal izateko beharrezkoa izango litzateke narrastien haztegi bat edukitzea eta Nafarroan ez dago halakorik, «ezta Europa osoan ere». Bestalde, sugeen erruz ere, «oso abere gu-

txi» hiltzen dela dio Irurzunek. Gainera, ekologisten hitzetan, Nafarroan betidanik egon da suge asko «euren hazkundera logikoa baita». Leku batzutan bestetan baino suge gehiago dagoela onartzen dute «eta gerta daiteke ere, lehen inoiz suge egon gabe, bat-batean agertzea». Gertaera honen arrazoia ez dago argi, «honi buruzko ikerketa sakonik ez baita egin, baina dena dela, prozesu naturala da».

Lehen ere ehundaka aldiz gezurtatu badute ere, ANAT-LANEko kideek nabarmenki azpimarratu nahi izan dute euren ez dutela sugeak bota, ezta gainontzeko talde ekologistek, ehiztariek edo Nafarroako Gobernuak, alde batetik beharrezkoa ez delako eta bestetik, oso garestia litzatekeelako hori egitea.



Franko ugaritu dira azken urteotan narrasti hauek zelaietan.

Milagros Rubio

Batzarreko zinegotzia

«Ez dugu gutxiengo bokaziorik»

ANA UNANUE / IRUNEA

Batzarre taldearen irudia edo aurpegi ezagunena da aspaldidanik tuterar hau, talde berezi honen aniztasuna hobekien isladatu duena. Ez zen alferrik izan zerrendaburua azken foru hauteskundeetan, eta parlamentuan sartzeko gertu gelditu zen, gelditu ere.

EGUNKARIA.— 'Esloganetan' gutxiengoaren ideia azpimarratu ohi duzue. Batzarre moduko talde batek minoritarioa izan behar du berez?

MILAGROS RUBIO.— 'Esloganetan' gure errealitatea aitortu baino ez dugu egiten, errealitate horren alde positiboena erakutsiz gainera. Ez dugu gutxiengo izateko bokaziorik, baina ezta kontrakoa ere: unean dagokiguna onartzen dugu. Eta argi dago gaur egungo egoeran Batzarre moduko talde batek, logikaz, minoritarioa izan behar duela.

EGUNKARIA.— Faltan sumatzen dituzue mobilizazio handiak, gauzak aldatzerik bazegoela uste zeneko garai haiek?

RUBIO.— Batzarre nahikoa proiektu berria da eta talde gisa ez ditu garai haiek ezagutu, bai ordea Batzarre osatzen dugun askok. Beste erakunde batzuetan geundela bizi izan dugu giro hori eta, jakina, nahiko genuke gaur egun jendea mugiarazteko ahalmen hura edukitzea, partehartze gehiago eta indibidualismo gutxiago. Baina gauzak horrela dira eta, bestalde, orduan baliagarriak ziren planteamenduek ez daukate derrigorrez orain zertan balio beharrik. Denok izan dugu eboluzioren bat.

EGUNKARIA.— Zer-nolakoa izan da zuena? Ekialdeko herrien hondamenak jatorrizko planteamenduak berraztertzea behartu zaituzte?

RUBIO.— Ez, talde berria izatean

ohizko erakundearen aldean abantaila bat dugulako, erakunde gehienetan oraindik lortu beharreko helburutzat dituzten ideiak guk sorreratik eduki ditugula alegia. Horrela, Batzarre nahiko ideia akratekin jaio zen, aniztasunaren lagun eta estatismoaren etsai. Horregatik, gure jatorrizko ideiak hankaz gora jarri beharrean, Ekialdeko herrien hondamenak berretsi egin ditu.

EGUNKARIA.— Oso talde ideologizatuaren itxura daukazue, 'goardia zaharrarena' nolabait esatearren. Jende gaztea erakartzeko oztopo izan al daiteke hori?

RUBIO.— Denok daukagu jende gaztea erakartzeko zailtasunak, 25 urtetik beherakoak beste klabe batzuekin mugitzen dira eta. Ukaezina da. Baina, hala ere, gazteak hurbiltzen zaizkigu, lehen hurbiltzen zen jendearekin zerikusirik ez duten gazteak gainera. Egia da irudi hori daukagula, baina ez gaude jendeak uste duen bezain ideologizatuak.

Tutera urrunegi dago askorentzat, eta gauza txikienetan ere nabari da. Badirudi Nafarroa Tafallan amaitzen dela».

EGUNKARIA.— Foru hauteskundeetan aurkeztzen zarete, orain arte ordezkariarik ez lortu arren. Inoiz pentsatu al duzue akaso ez-kerrari botoak kentzen dizkiozuela?

RUBIO.— Pentsatu baino gehiago, beste batzuek planteatu izan digute gai hau. Baina denok dugu geure aukera egiteko eskubidea eta inork ezin digu hau kendu. Guk gauza bera esan geniezaieke Tuteran aurkeztzen diren gainontzeko indar ezkertiarrei, baina inoiz ez zaigu bururatu beraiek aurkezteagatik guri botoak kentzen dizkigutela esatea. Eskubide osoa dute Tuteran aurkezteko,

Batzarrek foru hauteskundeetan parte hartzeko eskubide osoa duen bezalaxe,

EGUNKARIA.— Hauteskunde nagusietan HBko zenbait hase-rreru egin ziren botoa beraientzat eskatu beharrean aukera librea utzi zenutelako.

RUBIO.— Oso tristeia izan zen. Agian urduri jarri ziren, borrokan diharduen jende horrentzat egoera gogorra zelako, beti eskuinaren ikusmiran. Akaso horrek urduri jarri zituen tentsio une hartan, ez dakit, baina oso gauza mingarriak entzun eta irakurri genituen, bai Batzarre buruz talde bezala, baita Batzarre osatzen dugun batzuei buruz ere. Ez dut ulertzen, beti esaten duguna gomendatu genuen eta: aukera librea, beti ere botoa eskuinari —PSOE barne— ez ematekotan. Ez zen jarrera aldaketarik egon gure aldetik, guk ez dugulako HBrentzat botoa inoiz eskatu. Hori Zutik-ek egin izan du.

EGUNKARIA.— Ezadostasun na-

bariak dituzue beraiekin?

RUBIO.— Mobilizazioetan barrikadaren alde berean egon ohi gara, baina horrek ez du esan nahi ezadostasunik ez dugunik. Noski ditugula. Sarri batzen gaituen gai berberak bereizten gaitu. Antimilitarismoak, esate baterako, intsumisioaren aldeko borrokan batu gaitu orain, baina Armada guztiei ez esaterakoan edota nahi dugun euskal estatuari buruz hitz egiten hasiz gero, ziurrenik ezadostasunak sortuko lirateke.

EGUNKARIA.— Zer-nola bizi duzue Tuteratik nazio aldarrikapena?

RUBIO.— Ezbairik gabe, inguruak asko baldintzatzen zaitu, baina urratsak zer nolako abiaduran eman ditzakezun erabakitzerakoan bakarrik. Ez ditu zure helburu eta nahiak aldarazten. Tuterako Udalean izan nituen aurreneko iskanbilak ikurrina ateratzegatik izan ziren. Esan nahi dut hasiera-hasieratik izan dugula euskal nazioaren proiektua buruan eta ez dugu hori ezkutatzen. Aitzitik, guregan hurbiltzen den jendeak hori argi eduki dezan saiatzen gara.

EGUNKARIA.— Erriberan tradizio handikoak dira ezkerreko kandidatura independenteak. Irauterik izango al dute?

RUBIO.— Aspaldidanik ez dira hasiera batean bezain bateratuak eta presioak ere badaude alderdi guztien aldetik horiek berengantzeko. Onuragarria izango litzateke kandidatura independenteek irautea eta, aldi berean, alderdi politikoak presionatzea.

EGUNKARIA.— Ahaztua al dago Tuteran?

RUBIO.— Bai, erabat. Gauza txikienetan nabari da: nazio planteamendua duen egunkari bat hartzen duzu zineman zer dagoen begiratzeko eta Tuteran ez da azaldu ere egiten.



OSKAR MONTERO

NOISKIJATOR

© Zaldi Eroak

